

MARINA GARCES

Gu baten esperientzia

Espai en Blanc 2002an Bartzelonan jaiotako proiektu baten izena da; helburua, orduan esan genuen bezala, “pentsamendua berriro liluragarri egitea” da. Liluragarri izate horrek esan nahi du geure indar eta ahalegin guztia horretan jartzea, eta hori pentsamendua kolektibo bihurtzen denean, gure bizimoduari berari eragiten dionean, eta gure errealitatearen oinarrian dauden gauza begi-bistakoen aurreko erronka gisa altxatzen denean gertatzen da.

Hau bezalako proiektu batek ezin zuen munduaren aurrean diskurtso kritiko bat produzitzeko helburu hutsa izan. Hasieratik beretik, produkzio honen baldintzez esperimentatu beharra planteatu genuen: bere sorreraren, komunikazioaren, pedagogiaren eta esku-hartzearen toki, harreman eta lanabesez. Ez baikenuen bakarrik autore kolektibo bat eratu nahi, baizik eta benetako pentsatzeko makina bat abian jarri. Dispositibo bat alegia, produkzio teorikoaren mapa ezagunak aldaraziz, pentsamenduaren politizazio berri bat sortzeko. Militantzia eta antolaketa politikoaren modu tradizionalen krisiak baliorik gabe utzi du politizazioak kontzientzia eta egiazko diskurtso baten transmisioa behar dituela dioen ideia zaharra. Mundu globalean dena begien bistan dago (bidegabekeriak, gezurrak, ankerkeria, esplotazioa, etab.) eta ez da ezer gertatzen. Azalerarazteak eta salatzeak informazio mailan badu balioa, ez ordea gizarte eraldaketarenean. Halaz, kontzientzien pizte horren premisa ilustratuak, geroago langile mugimenduak klase kontzientzia gisa bere eginak, galdu egin du bere potentzial subertsiboa. Zertan datza, orduan, pentsamendu kritiko bat produzitzea eta partekatzea? Nola gertatzen dira, gaur egun, eraldaketa eta prestakuntza politikoak?

Galdera horietatik abiatuta, arazo propiotzat bereganaturik alegia, Espai en Blanc-ek era askotako proiektuak burutu ditu, hala nola eta besteak beste *Jornadas sobre el estado-guerra* (2002ko iraila), “Programas de subversión” karpeta (*Archipiélago* aldizkaria, 53. zk.), *Informe Barcelona 2004: el fascismo postmoderno* lana (Bellaterra arg., 2004), *El taxista ful* (Jo Sol, 2005) filmarekiko lankidetzak, *Las luchas autónomas en España* (egite fasean) ikerlana, edo “bizitzaren subertsiorako materialen” *Espai en Blanc* aldizkariaren edizioa, 2006ko urrian hasi baita kaleratzen. Horiek guztiak egoera-pentsamendu baten esperientziak dira, geure praktikei, gu geu kide garen kolektiboetara loturiko pentsamendu batenak. Geure buruari galderak egiteko praktikak dira, eta horietan ez dira argi bereizten subjektua eta diskurtsoaren objektua.

Pentsatzea gu geu pentsatzea da. Munduaren arazoari ekitea gu geu horretan elkarrekin txertatzea da. Globalizazioak lapurtu digun horixe baita mundua. Gure parean jarri du, ikusle, kontsumitzaile edo biktima huts izatera mugatzen gaituen ezintasunaren ispilu gisa. Eta izate hirukoitz honetatik, kritika neutralizatu egiten da, diskurtsoa esterilizatzen duten hiru formatan, honakoak: estetika (posizioen jokoak), moralak (judizioak) edo psikologia (ongizatea-ezinegona). Hirurek munduaren parean lagatzen gaituzte, harekiko harreman despolitizatu batez. Pentsamendua politizatzeak, orduan, gu munduaz atzera jabetzea esan nahi du. Beste modu batez esanda: gure artean dagoen mundua ikusten ikastea. Ba al da, egun, hau baino pedagogia premiazkoagorik?

Planteamendu horrek bultzatu gintuen *La tierra de nadie en la red de los nombres* izenaz 2006ko urtarril eta martxo artean izan ziren topaketa batzuetarako deialdia

egitera. Ekimen hau pentsamendu kritikoa *gure artean* sortzen den moduaren erakusgarria da; hau da, erakutsi egiten digu pentsamendu kritiko bat lantzeko pentsalari-audientzia hierarkia eten egin behar dela, *gu* pentsalari bat eratzeko, benetan arazo diren arazoetan aurrera egiteko gai izango den hitz kolektibo bat sortzeko. Horregatik, lerrootan zehar esperientzia honetan murgilduko gara, hezkuntza ireki baten egungo erronkei buruzko gogoeta bati egin diezaiokeen ekarpenean.

Bost hilabeteen zehar, Espai en Blanc-ek topaketa baterako deia egin zuen, hil bakoitzeko azken ostegunean taberna-lokal batean biltzeko (Bartzelonako Horiginal tabernan izaten zen, zehazki). Topaketa bakoitzak arazo bat planteatzen zuen (Gizartearen ezinegona, Zibismoa politikaren aurka, Mugako espazioa, *Gu* horren esperientzia eta Hitza hartzea), eta blog baten bidez zabaltzen zen galdera eta material sorta batetik abiatzen zen. Nahi zuena agertzen zen bertara: iragarritako hizlaririk gabe, koordinazio mahairik gabe, hitz egiteko zein erantzuteko txandarik gabe. Bost hilabeteen zehar, ehun pertsonatik gora elkartu ziren, elkar ezagutzen ez bazuten ere kasu askotan, elkarrekin pentsatzearen. Auto-deialdi anonimo honek hitzaren eta bizitzaren beraren politizazio espazio bat zabaldu zuen. Zein dira esperientzia honen giltzak, eta zergatik har dezakegu aldi berean hezitzaile eta eraldatzailetzat?

Guk egiten dugun balorazioaren arabera, topaketen bidez lortu egin genuen pentsamendu kritikoa neutralizatzen duten dinamikak hausten hastea. Eta batez ere bi alderdi nagusitan gertatu zen hauste hori: alde batetik, gertakari kolektiboa auto-deialdi bihurtu genuen eta, bestetik, kritika enuntziatetik kritika gauzatzera igaro ginen. Merezi du kontu hauetan sakonago sartzea, gaur egun (auto)hezkuntza ekintza batek dituen posibilitateei buruzko hausnarketa egiteko.

Gertakari kolektibo bat auto-deialdi bihurtzen denean, honek esan nahi du *gu* hori dela gertakariari zentzua ematen ari zaiona. Gaur egungo metropoliko bizimoduan, gertakari kolektiboak ugari dira. Are gehiago, gehienak kolektiboak direla esan genezake, eta zaila bakarrik egotea dela. Alabaina, hiriak galdu egin du auto-deialdirako ahalmen guztia, zeren eta gertakari hauetan ez baitago *gu* horren arrastorik. Horietara joaten gara, bai hitzaldi bat izan, futbol partida bat, kontzertu bat, manifestazio bat edo herri festa bat izan, ikusle, entzule, partaide, bezero gisa. Bakoitza bere jakinduria, dibertsio, emozio dosiaz itzultzen da etxera, baina inor ez da irten bere pertsona berezitasunetik, bere esperientzia-konsumitzaile gisako *ni* horretatik. Gauza jakina da jakinduria eta ezagutza oso pribatizazio prozesu indartsua pairatzen ari direla, bai bere zabalkunde eta transmisio moduetan, gero eta itxiagoak diren instituzioen esku baitaude, bai bere patentizazioaren bidez. Baina horretan sakonago joz, kontuan hartu behar da ezen jakinduriak gain, esperientzia bera ere pribatizatu egin dutela. Gizartea ghetto bihurtzea eta bizitza eta esperientzia bera ere ghetto bihurtzea batera doaz, eta aipatu azkena dugu gaur egun hezkuntza proiektu orok aurre egin behar dion arazo behienetako bat.

Nola eten auto-erreferentziaren murrak, modu paradoxikoan informazioaren eta komunikazioaren gizartea antolatzen eta zatitzen dutenak? Espai en Blanc-en topaketetan, hitzaren enuntziatorako tokia hutsik lagata egin genuen. Leku huts hori ez zen iritziaren espazio neutroa. Tentsio espazio bat zen, eta horretan arazo jakin bati hel zekiokkeen, edo heltzeke utzi. Blogaren bidez eta han erreproduzitzen genuen aurkezpen laburraren bidez Espai en Blanc-etik jaurti genituen galderek eragina izango zuten agian gudan, guretzat zentzuren bat izan zezakeen hitz bat ateraraz zezaketen, edo axolagabe utzi bestela, gure ohiko banakotasunean bildu eta gorderik. Tentsio espazio horretan,

bere buruari eusteko gai zen hitzak soilik izan zezakeen zentzua, batzuegandik besteengana aurrera egiten zuenak, pentsamendu kolektibo eta anonimoaren ariketa batez. Hitza instantzia askotatik justifika daiteke (instantzia akademikoak izan daiteke, kulturalak, polizialak, osperei eta agintari lotuak...), noiz diosku, ordea, zerbait? Noiz egiten du zerbait gurekin? Hain zuzen gure auto-erreferentziazko murrak lerrarazten dituenan, mugiarazten gaituenan. Ez pentsatzen ari garena esatea ahalbidetzen digunean, baizik eta ez dakiguna pentsatzera behartzen gaituenan.

Topaketetan gertatu zenagatik, eta horietan parte hartu zutenek egindako balorazioengatik, lur-mugimendu hori benetan gertatu zela uste dugu. Orduan, ez ginen etxera gure jakinduria eta errekonozimendu dosi partikularraz itzultzen, baizik eta, den-denok zeharkatu gintuelarik, gure dimentsio komuna bihurtu zen pitzadura baten hustasunez. Une horretan, topaketarako deiak utzi egiten dio eskari kopuru jakin batek erantzun behar dion metropoliko eszenatokiko beste eskaintza bat izateari, *gu* pentsakor baten benetako auto-deialdia bilakatzeko.

Ariketa kolektibo horretan, pentsamenduaren potentzialtasun kritikoa atera egiten da bere ohiko anestesia egoeratik, zeren eta, lehen esan bezala, kritika enuntziatetik kritika gauzatzera igarotzen baikara. Hitzak bere buruari eusten dion tentsio espazio horretan arazo komunei ekitean, *ni* hori bere auto-erreferentziazkotasunetik erauzteaz gain teoria bera ere atera egiten dugu bere zirkulazio espazio legitimatuetatik, hots, autore erreferentziatua duen diskurtso akademikotik, informazio bideetatik eta iritzi foroetatik. Izan ere horietan kritika, kritikarik dagoenean, enuntziatu besterik ezin da egin. Hauxe du muga, egunero-egunero geure burua neurtzen duen ezintasunaren atalasea, haratago joz gero hezkuntza eraldatzaileako erronka baten hastapena eskaini behar baitu. Lehen esaten ari ginen ezen politizazioaren arazoa kontzientziaren arazoa izan dela tradizionalki. Gaur, berriz, gorputzaren arazo bat dela esan genezake. Nola gauzatu kritika? Nola lortu pentsamendu kritikoa gorpuztea?

Gure esperientzian, honaino hitzaren espazio gisa marraztu dugun tentsio espazio horretan gorputza jartzeak guk geuk ere imajinatu ez genuen garrantzia hartu zuen. Topaketen osagarri genuen bloga bere "emisor" eginkizunetik igaro ez zen bitartean - hau da, bakar-bakarrik deialdiak egiteko, gauzak gogoratzeko eta material osagarriak ateratzeko balio izan zigun, baina ez zen inolaz ere lehenago izandako solasaldiak luzatuko zituen elkarrekintzazko dinamika batean sartu-, *topaketara joatea* gure bileretako bakoitzaren ekintza nagusia bilakatu zen. *Hor egotea*, nahiz hitzik esan gabe, esperientziaren une funtsezko eta eraldatzaileena izan zen. Zergatik? Kritikaren ondorioak ezin direlako bakarrik esaten ari denaz neurtu, baizik eta gertatzen ari denaz (zaigunaz). Eta, deskribatu dugun bezala, elkarrekin pentsatzeko posibilitate horren bidez zabaldu zena *gu* horren esperientzia bat izan zen, eta horretatik abiatuta gutako bakoitzak aukera izan zuen *bera* baino zerbait gehiago izateko. Hau ez al da hezkuntzaren funtsezko esperientzia? Heztea ez al da, akaso, nor bere baitatik ateratzea eta inorena ez den lurraldean sartzea, bertan mundu komun bat sortzeko? Gure topaketen izenean jasotzen genuen bezala "inorena ez den lur" hauxe da "izenen sarea" saboteatzen duena, bahitzen diguten eta gutako bakoitzak bere konektagarritasun eta erabilgarritasun nodoa izan behar duen mundu horren ordena saboteatzen duena.

Espai en Blanc-ek parte hartu zuen *El taxista ful* film luzearen protagonistak, filmari amaiera emateko, honako galdera hau egiten du: "Nola zurlatu errealitatea?". Topaketa hauek hori egiteko ahalegin bat izan dira, agortu ez den ahalegin bat, zeren eta itsuan eta galdera pila batez abian jarri genuen esperientziak zeharo bildu gaitu, neurri batez eta

modu hauskor samarrean izan bada ere, errealitatea zulatuxe utzi dugun iritzira; eta elkarrekin egin dugu gainera. Ahalegintzen segitu dezakegu, esperientzia hau luzatuz eta etorkizun diren guztiak asmatuz. Horien bidez ez dugu kontzientzia berririk sortuko, ez egia berri bat zabalduko. Hemen ez baita dagoeneko inor hezten. Baina *gu* honen esperientzia honetan arituz, beharbada gorputz prestatuago bat izango dugu beldurrari aurre egiteko, gorputz agerikoago baina ez hain isolatu batez. Gorputz horrek ongi baitaki bere bizitza ez dela soilik berea, eta bere buruarengandik haratago doan horrexetan duela dena jokoan.

MARINA GARCES irakaslea da Zaragozako Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean. Bartzelonan bizi da.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopia, banatu eta jende aurrean erakutsi ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu